

2021-2022 IKASTURTEA

anMesten

duen komunitatea



Caritas
Gipuzkoa

GIZARTEA ERAIKITZEN ARI GARA, AMESTEN DUEN ETA BIZI DEN GIZARTEA.

SARRERA

Material hau, hasiera batean, **irakasleentzat** pentsatuta dago, konpromisoaren, justizia sozialaren eta giza duintasunaren balioak landu ditzaten ikasleekin, Caritasen begiradak eta ekintzak proposatzen duen sentsibilizazio-estrategiaren bitartez.

Hezkuntza-komunitateak sentsibilizaziorako gune garrantzitsuak dira eta, Caritasek, gizarte-ekintzaren eragile den aldetik, komunitate horien pentsamenduan eta jokabidean aldaketak eragin nahi ditu, pobrezia, bazterketa eta gizarte-desparekotasuna murrizten laguntzeko; ingurumena eta bizitza babesteko; giza eskubideak, eskubide ekonomikoak eta sozialak betetzen direla zaintzeko; eta balioetan oinarritutako bizikidetza lortzeko...

Helburu pedagogiko horien bitartez eta hezkuntza-eragileei eskaintza eginez, Caritasek mundu justuago eta gizatiarrago bat eraikitzeke eginkizuna betetzen du, hemen eta gaur, gure inguruko pertsona pobre, ahul eta kalteberentzat. Proposamenaren helburua, beraz, bizitza eta ekintza aurrez aurre jartzea da, errealitateak ekartzen dizkigun beharrei hobeto erantzutearren.

MOTIBAZIOA

2 aditz dira ikasturte honetako eta lan-proposamen honetako ardatz. Amesten duzu? Bizi zara?4 hiruhileko, hausnarketarako 2 une, amesten duen eta bizi den, gizarte bat eraikitzeke asmoz, beste pertsonarekin bat egin eta mundu hobeagoa lortzeko konpromisoa har dezagun.

Proposamen honetan proposatzen dizkizuegun jarduerak elkarri lotutako dinamikak dira, eta bi urratseko ibilbide bakarra osatzen dute. Lehenengo unearen helburua bidea amestea da, pertsona bakoitzak ditugun ametsak piztu eta, horietan oinarrituta, gizarte justuago bat eraikitzea.

Horretarako, bizitzari buruzko galderak egingo dizkiogu geure buruari, bizi ote garen eta bizitza erdian jartzen ote dugun; gu geu garenaren duintasunari, interdependentziari, ahultasunari buruzko galderak. Gure ametsek eta guk geuk gure bizitzan beste batzuen ametsekin eta amesten duten bizimoduarekin bat egiten ote dugun ikusiko dugu. Beste batzuek amesten duten bizimodu duin eta onaren gaineko ametsak betetzeko konpromisoa hartzen ote dugun. Eta ospatu egingo dugu. Bultzatzen gaituzten ametsak, sortzen den bizitza, ondoan ditugun pertsonak eta besteen ametsak betetzeko geure konpromisoa ospatu.

Ibilbide pedagogikoa amaitzean, ekainean, Corpus egunean, Caritasen egunaren barruan, sare sozialetan ekintza zehatz bat proposatuko dugu: martxan goazela amets egitera, pertsona guztiak bilduko dituen amets komun bat sortzera eramango gaituen ekintza bat eta, hartara, **"ni"-tik "gu"-ra eta "gu"-tik "pertsona guztietara"** doan ibilbidea osatuko dugu.

HELBURUAK

Parte hartzen dugun bizitza publikoaren eremu guztietan betetzen dugun eginkizun pertsonalari eta komunitarioari buruzko kontzientzia hartzen eta gogoeta egiten laguntzea, dauden gizarte-dinamiketan parte har dezagun eta, pertsona guztien duintasuna eta giza eskubideak defendatuta eta babestuta, gizartea gauza zehatzetatik eta egunerokotasunetik abiatuta eraldatzen laguntzeko.

Gizakien arteko loturak eta interdependentzia indartzeko premia bultzatzea, harreman gizatiarragoak, solidarioagoak eta inklusiboagoak ahalbidetzeko; horretarako, honako hauek egin ditzakegu:

- besteen hurko bihur gaitezke;
- bizitza publikoaren eta sozialaren espazioetan parte har dezakegu;
- bizikidetza solidarioagoa eta baketsuagoa lortzeko gure denbora, trebetasunak eta baliabideak baliatzeko konpromisoa har dezakegu.

HARTZAILEAK

- Ikastetxeetako eta beste hezkuntza-erakunde batzuetako ikasleak, 12-18 urtekoak.
- Caritas Gipuzkoako langileek ikasgelan laguntzeko prozedura eta eskaerak jasotzea

METODOLOGIA

Hiruhileko bakoitzerako bi dinamika diseinatu ditugu: 12-15 urtekoen talderako eta 15-18 urtekoen talderako.

Amesten
duen gizarte
bat erakitzen
ari gara



Justiziari, konpromisoari, duintasunari... buruzko gure ametsak eraikitzen laguntzen digun lehen urratsa eta une pertsonala amets egitea da. Francisco Aita Santuak honela gogorarazi digu:

Horra hor amets egin eta gure bizitza abentura eder bihurtuko duen sekretu eder bat. Inork ezin dio isolatuta aurre egin bizitzari. (...) Komunitate bat behar dugu babesa, laguntza eman diezagun, eta batak besteari aurrera begiratzen lagun diezaiogun. Bai garrantzitsua dela elkarrekin amets egitea!

Francisco Aita Santua

Jarduerak

Adina

Izenburua

Behar
diren
materialak

Ekintzaren
garapena

12-15 urte

1.
*Egiten al
duzu amets*

- Papera eta boligrafoa
- Ametsen Kutxa
[-deskargatu-](#)

[-deskargatu-](#)

12-15 urte

2.
*Ez izan
beldur*

- Papera eta boligrafoa
- Ametsen Kutxa

[-deskargatu-](#)

15-18 urte

3.
*Amesten
duzu?
Ez izan
beldur*

- Soka zatia
- Kateorratzak
- Koloretako papertxoak
- Ametsen Kutxa
[-deskargatu-](#)

[-deskargatu-](#)

15-18 urte

4.
*Amestu
mugarik
gabe*

Ez da materialik
behar

[-deskargatu-](#)